

BALOREZKO PROPOSAMENA


Atal honen bitartez guk sortutako zerbitzua aurkeztuko dugu, eta aldi berean, haren eginkizuna, xedea eta funtzionamendua argi utzi.

Lehenik eta behin maitasunari buruz hitz egingo dugu. Gure ustez maitatua sentitzea eta maitatzea pertsona orok bere bizitzan behar duen zati garrantzitsu bat da. Maitasun motei dagokienez, esan daiteke, senitartekoen edota lagunen arteko maitasuna dagoela, eta bestetik, ordea, bikote batekiko amodioa. Gu bigarren honetan zentratuko gara.

Bestetik, gure proiektuaren bitartez, gizartearentzako onuragarria den ekimen bat jarri nahi dugu martxan. Horretarako, ikusezintasunean dagoen kolektibo bati laguntzea pentsatu dugu, ETS-ak pairatzen dituzten pertsoneri, hain zuzen ere. Esan bezala, edonork behar du maitasuna, eta gehienetan horrelako gaixotasunak dituzten pertsonak zailtasunak izaten dituzte bikotea aurkitzerako momentuan, eta gu haiek maitasuna aurkitzeko behar dituzten tresnak emateko prest gaude.

Argi dago bikotekidea izatea geroz eta zailagoa bihurtzen ari dela, eta ligatzeko moduak guztiz aldatu direla ere bai. Dagoeneko existitzen dira jendearekin hitzorduetan izateko aplikazioak: Meetic, Tinder, Grindr... besteak beste. App horiek abiapuntu izanik, gure proposamena sortu da; izan ere, ez genuen nahi edonork erabili zezakeen aplikazio sinple bat sortu.

Beraz, ETS-ak pairatzen dituztenek maitasuna aurkitzeko erraztasunen beharra dutenez, eta gure zerbitzuaren bitartez zerbait berria edota desberdina eskeini nahi dugunez, bi ideia hauek elkartu ditugu. Plataforma bat sortuko dugu, ETLove deritzona. Honekin, pertsona hauen artean harremanak egiteko erraztasuna eskainiko dugu.



Gure proiektuaren xede nagusia aipatutako kolektiboari laguntzea da. Ulergarria da horrelako gaixotasun bat izatean zaildu egiten dela pertsona bat ezagutzearen prozesua; izan ere, ez da batere atsegina ETS bat duzula aitortzea, gehienetan baztertuta sentitzen baitzara. Bestalde, pertsona askok lotsa eta arbuioa ez sentitzearren, ez dute txit ere esaten haien gaixotasunari buruz, ondorioz, ETS-ak geroz eta gehiago hedatzen joaten dira, eta argi dago, funtsezkoa dela hedapen horrekin amaitzea.

Gure plataformak beste edozein erabiltzaileekin hitz egiteko aukera emango du, harremanak sendotzea helburu izanik. Horrez gain, hilabetero bi edo hiru ekitaldi egitea proposatzen ditugu: sukalde edo zeramika lantegiak, dantzaldiak... Honek jendea aurrez aurre ezagutzeko aukera ematen du, eta beste norbaitekiko konexioa lortzeko aukera bikaina da. Ekitaldi hauetara joan ahal izateko pare bat egun lehenago izena eman beharko da.

Horrez gain, Instagram eta Facebook kontu bat sortuko dugu. Esan bezala, ETS-ak dituzten pertsonen erosotasuna lortzea dugu jomuga, baina, aldi berean, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gainerako biztanleei gai honi buruz informatzea. Gutxi balitz, kontu honetan, zozketak, berritasunak eta mila gauza argitaratuko ditugu.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu, edonork maitasuna izatea bermatu nahi dugula. Maitasuna erreakzio kimiko bat da, zeinek dopamina sortzen duen, horren ondorioz gure bikotekidearekin gaudenean euforia naturala sorrarazten da, eta ez dugu nahi inorrek dakartzan baldintzengatik sentimendu ikaragarri hura ez bizitzea.

The logo consists of the letters 'ETS' written in a bold, black, handwritten style. To the right of the 'S' is a heart shape, also drawn in the same handwritten style, with the top of the heart overlapping the right side of the 'S'.